

**ZATIKAKO JUBILAZIOAK EGITEKO BALDINTZAK**

Behin eta berriz argitu dugun bezala, zatikako jubilazioa hartzeko baldintzak - 2012ko abenduaren 12 arte indarrean daudenak - honakoak dira

**61 urte baino gutxiago dutenentzako zatikako jubilazioa, errelebo kontraturarekin**

- Lanaldi osoko kontratua izan behar dute.
- Gutxieneko adina (jubilaziorako adinarentzako murrizketarik aplikatu gabe)

*"Mutualistak" badira, adina erreala 60 urte.*

*2012-12-31 arte, enplegu erregulazioko espedienteetan hartutako konpromezuek eragindako langileak edo 2010-05-25 baino lehenago onartu edo izenpetutako enpresa-hitzarmenek eragindakoak jubilatuta daitezke honako adina bete ondoren:*

*- 60 urte , errelebo-kontratua lanaldi osokoa eta mugarik gabekoa baldin bada*

*- 60 urte eta 6 hilabete gainontzeto kasuetan*

- *Lanaldi murrizketa gutxienez % 25 eta gehienez %75koa izango da. ( % 85-ekoa izan daiteke kontratua lanaldi osokoa eta mugagabea baldin bada).*

- *Kotizazio gutxieneko aldia: 30 urtetan kotizazio eraginkorrak (ezin da kontuan hartu aparteko soldatei dagokien proportzioa).*

- *Antzintasuna enpresan: gutxienez 6 urte , zatikako jubilazioaren dataren aurre-aurrekoak.*

Lehen Gizarte Segurantzak soilik onartzen zituen 2010eko irailaren aurretik erregistratu eta, ondoren, BOEn argitaratutako enpresa lan hitzarmenak. Duela hilabete batzuk irizpide hau aldatu eta onartzen ari da 2010eko maiatzaren aurretik sinaturiko enpresa lan hitzarmenak, bere garaian erregistratutik ez baziren ere.

Bestetik, 21011Ko azaroaren 29ko EAeko Auzitegi Gorenaren erabaki batek 60 urteekin zatikako jubilatzeke aukera zabaldu du nahiz eta enpresa hitzarmenik ez egon; baldin eta sektoreko hitzarmenak jasotzen duen. Litekeena da Gizarte Segurantzak zatitako jubilazio eskaera atzera botatzea eta, kasu horretan, helegitea jarri beharko da. Informazio gehiago nahi izanez gero STEE-EILASeko egoitzetara deitu.

Abenduaren 31n amaitzen da aukera hau eta, beraz, komenigarriai da ikastetxeetan kontu hau aireratzea, data horren aurretik lankideren batek 60 urte edo 60 urte eta 6 hilabete betetzen badu. 2013Ko urtarriletik aurrera, zatikako jubilazioa 61 urterekin eta %75koa izango da kasu guztietan. Dena den, bete bezain pronto eskatzea gomendatzen dugu.

**Hezkuntzan STEE-EILAS**

**ARABA:** Eulogio Serdan, 5      01012 Gasteiz      ☎ 945 14 11 04      📠 945 14 43 02      [araba@stee-eilas.org](mailto:araba@stee-eilas.org)

**BIZKAIA:** Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)      48003 Bilbao      ☎ 944 10 02 98      📠 944 10 13 60      [bizkaia@stee-eilas.org](mailto:bizkaia@stee-eilas.org)

**GIPUZKOA:** Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)      20015 Donostia      ☎ 943 46 60 00      📠 943 45 36 27      [gipuzkoa@stee-eilas.org](mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org)

**NAFARROA:** Descalzos, 72 (Iorja)      31001 Iruñea      ☎ 948 21 23 55      📠 948 22 97 90      [nafarroa@stee-eilas.org](mailto:nafarroa@stee-eilas.org)